

Prozedura Zibileko Lege berria

(The new Law on civil procedures)

ETXEBERRIA GURIDI, Patxi

Zuzenbide Prozesaleko irakaslea
Euskal Herriko Unibertsitatea
Manuel Lardizabal, 2
20018 Donostia
dppetgup@sc.ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2002), 9; 97-100]



E

leria aldizkariak
Prozedura Zibileko 1/2000
Legearen azterketari eskaini dio
"Testuak" bildumaren bigarren
alea. Bertan, Legearen berrikuntza
nagusiak xehetasunez aztertzen
ditu.

Z

a revista jurídica
Eleria dedica el segundo número
de la colección "Testuak" al análisis
de las principales novedades
introducidas por la Ley 1/2000 de
Enjuiciamiento Civil.

Z

e second numéro de
la collection "Testuak" de la revue
juridique **Eleria** rends compte des
principales nouveautés que la
nouvelle Loi 1/2000 de Mise en
Accusation Civile présente.



Espainiar prozedura zibila berrikuntza sakon baten beharrea zegoen inolako dudarik gabe. Prozedura Zibileko Lege (PZL) zaharra, 1881ekoa, egoera sozial eta ekonomiko zehatz baten testuinguruan ulertu behar da. Ekonomia, alde batetik, nekazaritzan oinarritzen zelarik, honen inguruan zuten iturri nagusia auzitegiatara iristen ziren arazo gehienak. Beste aldetik, eta aurrekoarekin lotuta, azpimarratu behar da Justiziara iristeko ateak zabalik zeudela bakarrik klase sozial zehatz baten kide zirenei. Beraz, Justiziara iristeko aukera, eskubidea baino pribilegio bat kontsidera zitekeen. Hau guztia kontuan hartuz, ez da batere harrizkoa prozedura zibil hura Erdi Aroan hedatu zen Zuzenbide Komunaren *solemnis ordo iudicialis*-ean oinarritzea. Hau da, prozedura luzea, erabat formala eta kostu handikoa. Prozedura eredu hau aldendu egin zen, beraz, Europan zehar, eta merkataritzaren eskariz sortzen ari zen prozedura zibil eredu batengatik: hau da, prozedura azkar bat, non epaileak ahalmen ugari eskuratzen dituen prozesua zuzentzeko, beti ere xedatzeko edo dispoitzeko printzipioa errespetatuz. Lege jaioberri hura zaharkiturik sortu zela esatea ez da, beraz, ausarkeria.

Egoera hau guztiz aldatzen da batez ere XX. mendeko bigarren erdian. Ekonomia industria eta merkataritzan izango du zutabea, oraindik nekazaritzak zuen garrantzia erabat baztertu gabe. Arazoak neurri berdinean ugaltu egiten dira, gizarte hartan protagonismoa ez baita klase sozial batetara mugatzen. Ekonomiaren agenteak zabaltzen diren heinean, klase sozial berrietara alegia, auzitegiatara jotzen duten pertsona multzoa hedatu egiten da. Pertsona bakan batzuen pribilegio izateari utzi eta eskubide bihurtuko da Justiziara jotzekoarena. Bilakaera honek bultzada indartsua ezagutuko du 1978. Kostizua onartu ondoren eta, batez ere, bere 24. artk. kontuan hartuz: hau da, babes judizial efektiboa eskuratze-ko eskubidea, oinarritzko eskubidea bezala jasotzen denean. Ehun urte pasata zituen PZL hura herren gelditu zen egoera berriei aurre egiteko eta etengabe aldatuta partzialak emango dira XX. mendean zehar.

Aldaketa partzial hauek ez ziren nahikoak izan Justizia zibilaren urritasunei erotik erantzun bat emateko. Legegileak hartuko duen bidea ez da izango, beraz, aldatuta partzialena, eta azkenik berrikuntza sakonaren beharra gauzatu egiten da Legea 1/2000, Judiziamendu Zibilarenarekin. Oraingoan, ezer aurreratu gabe, datu bakarra emango dugu berrikuntzaren adierazgarri: PZLak urte beteko *vacatio legis*-a izan du. Ikusi ahal izango dugun bezala, Lege honetan instituzio eta printzipio berri eta desberdinak ugaritu egingo dira, eta ohikoa bada ere arauak buletinean argitaratu eta hurrengo egunean indarrean jartzea, gure kasuan urte beteko epe horrek marka guztiak hautsi ditu. Eta ez da izan soilik egokitze materialen eragin bat, baizik eta baita arau berri oso baten ezagutzaren beharra ere.

Hain garrantzitsua eta erabakigarria izango den Legeari buruzko lan baten aurrean gaude. Oker ez bagaude, PZL berriari buruzko euskaraz argitaratu den lehen lanaren aurrean. Hala ere, lan kolektibo hau ez da PZL osoaren komentario bat, ezta ere prozesu osoa xehetasunez aztertzen duen eskuliburu bat. Egile bakoitzak, gai edo instituzio bati buruz arduratuz, honen azterketa burutu du, baina tratamendua ez da erabat asistematikoa, ez da alegia artikulua bakanen bilduma soilia. Honek esan nahi du lanaren zati bakoitzaren artean badagoela lotura logiko bat, eta, horrela, printzipioekin hasi eta prozedura arruntekin jarraitzen du; ondoren judizio arruntaren barnean eraberriturik azaltzen den judizio aurreko entzunaldia aztertzen da; gero prozesu monitorio berriarekin jarraitzen da; geroago helegiteak edo inpugnatze-ko baliabideak, kautelazko neurriak eta frogaren arauetarekin amaitzeko. Esan dugun bezala, lotura logikoa zatien artean; hala ere, sistematiko ki beste ordena egokiago bat jarrai zitekeen. Adibidez, frogari buruzko azterketak monitorioari utzi beharko lioke bere lekua, azken hau prozesu berezia baita, eta prozedura arruntak aztertu baino lehen frogaren arauetara tratatu. Ulergarria da lan honetan, PZL berriak eskaintzen dituen gai guztiak jorratu ez badira ere; etorkizunean sor daiteke horrelako lan handinahikoa, nor daki!, baina gerora begira hutsune bat nabari diogu lanari apur bat biribiltzeko: exekuzioari buruzko berrikuntzak ere ez dira nolana hikoak izan, eta merezi zuten tarteko bat azterketa honetan.

Bestalde, esan behar dugu lan honek duen interes zientifiko prozesalaz gain, pauso garrantzitsu bat eman duela euskara juridikoaren ikuspegitik, arlo prozesalean gutxienez. Dakigunez, badira urte mordo bat UZEIk bere Zuzenbide Hiztegia argitaratu zuela (1985). Dudarik gabe lagungarri eta erabilgarria izan da urte hauetan arlo juridikoan eta euskaraz nola edo hala moldatzen garenontzat. Baina egia da, baita ere, garai hartan aurrerapauso izugarria izan bazen ere, berritze prozesu baten beharrea zegoela hiztegi hura, eta lan horretan dihardu UZEIk. Argitaratu zenean, 1985. urtean, BJLOrekin bat egin zuen, eta ez zuen lege prozesal garrantzitsu honen berri jaso. Gauza bera gertatuko da PZLarekin, non ez bakarrik instituzio berriak, baizik eta terminologia berria ere erabiltzen den. Horregatik, iritzi ona besterik ez du merezi UZEI prestatzen ari den Hiztegiaren Glosarioa gehitzea lanaren amaieran. Ez da, noski, Zuzenbide Hiztegi osoa, prozesal arlokoa baino. Eskertzekoa da beraz UZEIk emandako baimena prozesal arloko Hiztegiaren aurrerapena argitaratzeko. Dudarik gabe, euskara juridikoaren normalizazio prozesuan pauso garrantzitsu bat izango da, erreseinatzen dugun lanaren egileak oso fin ibili ez badira ere terminologiaren erabilera koordinatzerakoan.

Lan kolektibo honen zati bakoitza laburki aztertu baino lehen, egileei buruzko aipamen bat egitea gustatuko litzaiguke. Ia gehienak

Unibertsitate mundukoak dira, eta ia gehienak Euskal Herriko Unibertsitatean jarduten direnak. Badaude, hala ere, salbuespenak, eta ez nolana hikoak gainera. Adibidez, Unibertsitate irakaslea baina Castellóko Katedraduna den GÓMEZ COLOMERek parte hartzeko asmoa azaldu zigun, bere lana euskaratua izan bada ere (K. Garmendiak). Gauza bera gertatu da RODRÍGUEZ ACHÚTEGUIrekin, zeina Bilboko Epailea izateaz gain Lege berriari buruzko hainbat jardunalditan parte hartu duen. Gainerako lanak euskaraz idatzitakoak izan dira jatorriz, txukuntze lanak K. Garmendiaren esku egon badira ere. Aipamen berezia egin behar zaie baita ere IZAGUIRREri, EHUKo irakaslea izateaz gain Fiskala baita eta praktikaren ikuspegia eman baitu eta ORMAZABALI, Gironako Unibertsitateko euskaraz zuzenbide prozesalarekin zerikusia duten ekimen guztietan parte hartzeko prest egoteagatik.

Laburki bada ere, azter ditzagun lan kolektibo honen zatiak banaka. Lehendabizikoa I. ESPARZAK prozesu eta prozedura zibil berriaren printzipio inspiratzaileak aztertzen ditu. Prozesuaren printzipio inspiratzaileei buruz esan behar da Konstituzioan jasotzen den eredu ekonomikoa kontuan hartuz oportunitate printzipioaren oinarria ezinbestekoa zela, hau da, alderdien borondate autonomia nagusitzen dela, interes pribatua baita gehienetan eztabaidagai. Oportunitate honetatik eratorritzen dira beste printzipio teknikoak, hala nola xedapen printzipioa, zeinaren arabera alderdien esku geratuko den prozesuari hasiera eman eta bertan eztabaidatuko den objektua zehaztea. Egileak argi uzten duen bezala, Lege berria erabat “alderdien ekarpen printzipioan” oinarritzen da, baina hau ez da xedapen printzipioaren derrigorrezko eskakizun bat zuzenbide konparatuak adierazten duen bezala, non epailearen ahalmenak indartu egiten diren prozesuaren zuzendaritzan interes publikoa dagoela argudiatuz. Baina berrikuntza nabarmenenak prozeduraren printzipioetan eman dira. Orain arte prozedura zibila erabat idatzia izan bada ere, PZLan ondoren aipatuko ditugun bi prozedura arruntak ahoz-kotasun eta bertatik eratorritzen diren printzipioetan oinarritzen dira, hots, hurrentasunean, trinkotasunean eta publikitatean. Egileak dioen bezala, aldaketa nagusi honek eragin izugarria izan behar du, eta horretarako ez dira nahikoak izango beharrezkoak izango diren baliabide material eta pertsonalak, baizik eta baita ere urteen poderioz prozesu zibilean parte hartzen duten agenteengan (epaile, abokatu, etab.) finkatu diren jarduteko ohi-turak aldatzea.

Lanaren bigarren zatian, K. ETXEBARRIA eta A. SAIZ prozesu arruntez jarduten dira. Kasu honetan ere, aldaketak funtsezkoak izan dira. Lehen aurreratu dugun bezala, 1881eko PZL ez zen gai behar sozial eta ekonomikoei aurre egiteko. Batez ere prozesu eredu edo tipoa, hau da, munta handiko judizioa, erabat atzeratuta geratu zen bere formalitate eta iraupena kontuan hartuz.

Ondorioa ez da larriagoa izango: prozesu eredu honen ondoan prozesu berezi anitz sortuko dira gai substantibo edo material bakoitzeko prozedura desberdinak arautuz. Egoera honen aurrean esan ohi da “prozedura-inflazio” honek dakarren lehen arazoa auzi bakoitzari aplikagarria zitzaien prozedura zehaztea zela. Aurreratu bezala, egoera hau erabat aldatzen da Lege berrian, non prozedura arruntak bi izango diren: judizio arrunta eta hitzezkoa –Lege zaharrean lau ziren–. Egileek judizio mota bakoitzaren eremua zehazten dute lehendabizi, hau da, noiz aplikatuko den judizio arrunta eta noiz hitzezkoa. Eta, ondoren, judizio mota bakoitzaren faseak zeintzuk diren azaltzen dute eske-matikoki. Lagungarriak dira erabat judizio mota bakoitzeko egileek erantsi dituzten grafikoak.

Hirugarren zatian, P. ETXEBERRIAK judizio aurreko entzunaldia aztertzen du. Instituzio honek aspaldiko aurrekinak izan ditu zuzenbide konparatua, baina espainiar prozesu zibilean ez da antzekorik arautzen 1984ko erreforman munta txiki-kiko judizioko “agerraldia” aurreikusten den arte. Baina gai honetan ere aldaketak ez dira nolana hikoak izan. “Agerraldiaren” porrota ikusiz, bi ardatz nagusitan oinarritu da aldaketa: batetik, alderdien entzunaldira ez azaltzeak ondorio larriak izan ditzake azaltzen ez denarentzat; eta, bestetik, entzunaldi horretan garatzen diren funtzioak ugaritu egin dira. Aipaturiko azken ildoak jarraituz, esan behar da ohikoak ziren funtzioei (adiskidetzeta, saneatzaile edo garbitzailea eta mugatzea) beste berri bat gehitzen zaiela, frogaldiarekin zerikusia duena. Horrela, entzunaldia izango da garai prozesal egokia ordura arte kontrako alderdiak aurkeztutako dokumentu edo informeei buruz iritzia azaltzeko, eztabaidagarri diren gertakariak zehazteko, frogabideak proposatu eta onartzeko, etab. Orain arte agerraldia tramite hutsa bazen ere, hemendik aurrera alderdiek (abokatu eta prokuradoreak kasuan) eta epaileak auziaz behar bezala jabetuz azaldu beharko dute entzunaldira, dituen onurak aprobetxatu ahal izateko.

Prozesu arruntekin gertatu den bezala, prozesu berezietan ere sinplifikazio nabarmena eman da. Hauen artean interes gehiena sortarazi duena, gure artean ezezaguna izateagatik, prozesu monitorioa da. Prozesu berezi mota honetaz J.L. GÓMEZ COLOMER arduratzen da, eta hasierako orrialdeetan azaltzen duen bezala, kredituari babes pribilegiatua eskaintzea da helburu nagusia. Hau da, kreditu zehatz batzuei erantzun eta babes judizial azkar eta eraginkorra bermatzea, judizio arruntak ez direlako horretarako gai. Prozesu monitorioaren bidez, diruzko zor bentzitu eta galdagarri baten ordainketa exigitzeko prententsioa babestuko da. Zor honek agirien bidez justifikatua egon behar du, eta ez du izan behar 5.000.000 pezeta edo 30.000 euro baino gehiago. Prozesu monitorioaren lehen urratsak inolako formalitatearik gabekoak dira: epaitegietan eskura daitekeen formulario simple batez eman dakioko hasiera, eta ez da beharrezkoa ez abokatu ez

prokuradore bitartez jardutea. Hartzekodunak aurkeztutako zorraren agiria epaileak onartuz gero, zordunari ordainketa errekerimendua egiten zaio (20 egun). Honek alternatiba desberdinak ditu: a) ordaintzea, eta ondorioz jarduerak artxibatu egingo dira; b) ordainketari oposatzea, eta kasu honetan auzia dagokion judizio motaren bidez erabakiko da; eta c) zorduna ez bada agertzen epailearen errekerimenduaren ondorioz, honek exekuzioa aginduko du auto baten bidez. Ebazpen hau izango da exekuziozko titulua. Egileak sarreran dioen bezala, oraingoz aplikazio eremua mugatua bada diru muntaren ikuspegitik, egoera hau erabat aldatuko da Espainian 2000/35/CE Direktiba trasposatzen den momentutik (2002ko abuztuaren 8a baino lehen).

Ondorengo atalean, I. IZAGUIRREK inpugnatzeko baliabideak aztertzen ditu. Sarrera orokor bat egin ondoren, helegite edo errekursoak aztertzen ditu banan-banan, eskematikoki bada ere. Agian kasazioaren eratze berria eta arau hauste prozesalengatiko aparteko helegitea lirateke nobedaderik aipagarrienak. Argi dago beste arrazoen artean moldaketa hauen oinarria Auzitegi Gorenaren lana arintzea eta, ondorioz, Autonomia Erkidegoetako Justizi Auzitegi Nagusiak hobeki aprobeztatzea izan dela. Egileak aipatzen ez badu ere, kontuan izan beharko da etorkizunean Auzitegi Goreneko Plenoak bilera batean kasazio helegitea interpretatzeko erabaki duen irizpide murriztalea.

Hurrengo atalari hasiera emanez, hau da, kautelazko neurriei buruzko arauketari, G. ORMAZABALEk neurri hauek babes judizial eragin-korra erdiesteko eskubidean duten eragina azpimarratzen digu bere sarrera modukoan. Legearen berritasun nagusi bezala, hauek aipatzen ditu autoreak: batetik, Legeak kautelazko babesaren araubide bateratu eta erkide bat ezartzen duela; eta, bestetik, Legeak ez duela kautelazko neurri konkreturik arautzen, edonolako neurriak dekretatzeko ahalmena aitortzen baitzaie auzitegiei. Hala ere, legegileak akorda daitezkeen neurrien katalogo bat eskaintzen du –beraz, *numerus apertus*–. Ondorengo orrietan, autoreak aztertzen ditu kautelazko neurrien ezaugarriak (instrumentalitatea, etab.), aurrepostuak (*periculum in mora*, *fumus boni iuris*, etab.) eta kautelazko babesaren irismena edo norainokoa –azken atal honetan, legegileak osatutako neurri zerranda aztertzen du, bere jarraibide edo lagungarri izaera azpimarratuz–. Azkenik, kautelazko neurriak akordatzeko prozedura azaltzen du egileak, eta, honekin batera, subjektu pasi-

boak neurriekiko egin dezakeen oposizioa. Eta, ORMAZABALEk dioen bezala, kautelazko neurriek aldi baterako bokazioa dutenez, Legeak neurrien aldazpena eta altxamendua erabakitzeko aukera jasotzen du.

Azkenik, Bilboko Magistratua den E. RODRÍGUEZ ACHÚTEGUIk frogaren arauketa azaltzen digu. Lehen esan dugun bezala, sistematikoki egokiagoa litzateke atal hau lanaren hasieran, printzipioen ondoren, kokatzea. Autore honek bere sarreran ohartarazten duen bezala, frogaren arloa Lege zaharrarekiko gehien aldatu den gaitako bat izan daiteke. Sarrera berean salatzen duen bezala, aurrerapen garrantzitsu gehienak ez dira gogoeta pausatuen ondorio izan, tramitazio parlamentarioan zehar oso berandu sartu ziren aldaketen ondorio baino. Azken orduan eginiko aldaketa hauek aztergai dugun Legeak merezi duen koherentziaren kalterako izan dira hainbat kasutan. Arrazoi osoa du egileak egoera hau salatzean. Gobernuak prestatu zituen idazkietan kontraesan ugari nabarmentzen ziren prozedura berrien diseinua ikusiz (hurrentasunean, publikotasunean eta ahozkoatasunean oinarriturikoak) eta ondoren frogaren arauketarekin konparatuz. Zirriborroetan jasotako arauketa, batez ere prozeduraren ikuspegitik, ez zen PZL zaharretik gehiegi aldentzen eta, dakigunez, arauketa hartan frogari buruzko egintzak, praktika barne, erabat sakabanaturik burutzen ziren. Ezinezkoa denez hitz batzutan, laburki ere, frogari buruzko arauketaren berrikuntzen berri ematea, lanaren egituraren azalpenarekin konformatu beharko dugu. Frogaren objektua eta karga dira lehendabiziko aztergaiak; ondoren, prozedurarekin jarraituz, frogaren proposamena, onarpena eta azken honen ebazpenari buruzko helegiteak aztertzen ditu, eta baita ere frogaren prestaketa (froga aurreratua, zitazioak, laguntza judiziala) eta praktika; ondoren frogabide bakoitzaren arauketa aztertzen du laburki; eta, amaitzeko, azken eginbideak –zeinak hobeto epaitzeko eginbideetatik erabat aldentzen diren– eta frogaren balorazioa.

Erreseina honi amaiera emateko, esan behar da atal bakoitzaren bukaeran edo testu barnean gai bakoitzari egokitzen zaion bibliografia zerranda jasotzen dela. Ez da betarik izan oraindik gai guztiei buruz monografiak argitaratzeko –salbuespenak badaude ere: monitorioa, judizio aurreko entzunaldia–, baina zerranda horretan artikulua, eskuliburu nahiz iruzkin ia gehienak azaltzen dira. Ahaztu gabe ia urte bete pasa dela lan hau argitaratzeko lan-atalak igorri zirela.